

© Hitzontzi ©

Literatura sorkutza

JUAN KRUZ IGERABIDE



Jokin Mixelena

MUTIKOA ETA ITSASOA

Mutiko bat
makilatxo batez
AMA idazten ari da
itsasertzeko hondarrean.
Olatu ttikiak etorri
eta letrak ezabatzen dituzte.
Mutikoak behin eta berriz
AMA idazten du, gero eta bizkorrago,
baina olatu ttikiak ere bizkorak dira.

Mutikoa, haserre, olatuei joka
hasi da makilaz.
Orduan, olatu handi bat etorri
eta makila kendu dio mutikoari
eta itsas barnera eraman du.

Mutikoak AMA! egin du oihu
eta ihesi doa lasterka.

(*Atea kox-kox* liburutik, Elkar, 1997)

≈ Hitzontzi ≈

BEGIAREN PRINTZAK

Ateraldia

Boligrafoa tente jarri
eta bakarrik
idazten hasi da.

Doinu fina

Txorroskilo bat
pianojolearen hatzak
zorrozteko.

Begi lotiak

Erabat jaio
ez diren haurrak
oso lotiak dira.

Agerpena

Nire amonaren irudia
patata purezko
urjauzietan behera.

Musikajolea

Hortzak arrabita-makilaz
garbitzen ditu
musikari irribarretsua.

Zurezko eskailearen soinua

Hankak presaka:
zurezko eskailean
barre ttikiak.

Jokin Mitxelena